



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

EUSKARA ELKARGUNEA

TXOSTENA: 3/2018

EGUNA: UZTAILAK 17

HASIERA: 18:06

BUKAERA: 19:22

LEKUA: SIMONE DE BEAUVOIR ELKARTEEN ETXEA

PARTE-HARTZAILEAK

EUSKARA ELKARGUNEA	GIZONEZKOA	EMAKUMEZKOA
HEGOALDE EUSKALTEGIA		1
AEK	1	
IKA	1	
BAI EUSKARARI	1	
LAZARRAGA K. ELKARTEA	3	
GEU ELKARTEA	1	
PODEMOS	1	
PNV	2	
PP	1	
EH BILDU		1
HIRIGINTZA SAILA	1	
PARTAIDETZA ZERBITZUA		1
EUSKARA ZERBITZUA	1	1
GUZTIRA: 17 PERTSONA	13	4

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko bileraren informea onartzea.
2. ESEP-ren iraileko elkargune monografikoaren data.
3. Gasteizko Kafe Antzokia.
4. .EUS domeinua.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila
Departamento de Participación y Centros Cívicos

Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua
Servicio de Participación Ciudadana

1. Aurreko bileraren informea onartzea.

Aurreko euskararen elkarguneko informearen inguruan akats ortografikoak eta joskerazkoak izateaz gain, informe luzea eta ulergaitza dela azpimarratu da.

2. ESEPre iraileko elkargune monografikoaren data.

ESEP lantzeko elkargune monografikoa deitzeko data zehaztu da: irailak 26.

3. Gasteizko Kafe Antzokia.

Kafe Antzokia (aurrerantzean KA) Ruiz de Bergara jauregiaren moldaketen inguruan ikuspuntu arkitektonikotik azalpenak eman ditu Iñaki Prusillak. Forjaketari buruz mintzatu da, kontsultatu dute eta baieztatu diete posible dela beheko solairu eta lehenengoaren artean forjaketara egitea. Honek espazioaren erabileran aldaketak ekarri ahal ditu. Lehenengo eta bigarren pisuen artean, aldiz, ezin da forjaketarik eraiki.

Eraikinaren deskatalogazioaz galdetu zuen udalak Eusko Jaurlaritzan eta erantzuna ezezkoa izan zen.

Kronograma

Jarraian kronogramaren laburpena azaldu da. Lan bakoitzaren bi epe eman dira aukeran, proiektua eta obra lizitazio banarekin aurkeztuz edo bietarako lizitazio bakarra eginez

- **Ruiz de Bergara jauregian** eraikitzea 28 hilabetez luzatuko litzateke proiektua eta obra lizitazio banatan eginez gero. Proiektua (pliegoa hilabete 1+lizitazioa/esleipena 4 hilabete + proiektua 5 hilabete) eta obra-lanak (pliegoa hile 1+lizitazioa/esleipena 4 hilabete + lanak 12 hilabete).

Proiektua eta obra lizitazio berarekin egitean 23,5 hilabete iraungo luke. Proiektua eta obra (pliegoa hilabete 1'5+lizitazioa/esleipena 5 hilabete + proiektua/lanak 17 hilabete). Aukera honekin 6 hilabete gutxiago kostatuko litzateke.

Aukera bat edo bestea hartzeko justifikazioa egin behar da kontu-hartzailearentzat Iñaki Prusillak azaldu duen moduan. Erabakia teknikoa da, politikoen nahia



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila
Departamento de Participación y Centros Cívicos

Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua
Servicio de Participación Ciudadana

prozesua azkartzea baita. Gobernu taldeak aurten atera nahiko luke lizitazioa eta datorren urteko apirila aldera esleitu eta proiektua egiten hasi.

➡ Informearen amaieran Ruiz de Bergara jauregia eraikitzeko kronogramaren eskema atxikitzen da.

- **Euskararen Etxea Eskoriatza Eskibel jauregian egitearen aukera.**

Euskararen Etxea Eskoriatza Eskibel jauregian egitearenak, beste bi aukera ematen ditu.

GKA Sukaldaritza eskolan egitekotan 34 hilabetekoa izango litzateke (proiektua 10 hilabete + obra 24 hilabete), ikerketa arkeologikoa gutxienez hiru hilabetekoa izango dela ahaztu gabe.

Bestalde, proiektua eta obra aldi berean lizitatzekotan, 29,5 hilabete.

Euskararen Etxea Eskoriatza Eskibel jauregian egiteko bi gauza hartu behar dira kontuan. Bata, zero puntuan jarri behar dela espazioa (estrukturalki obrak egin). Jauregia zero puntura eramateko obra horiek 14 hilabete iraungo lukete. Bestea, espazioa antolatzeko obrak 24 hilabete beharko lituzke, guztira 38 hilabete liratekeelarik. Proiektua eta obraren lizitazioa batera eginez 30.5 hilabete.

Udal gobernu-taldeak uztailean adostu nahiko luke erabakia lanean hasteko lehenbailehen, abuztuan bertan proiektua eta lizitazio prestatzeko.

Galdera eta iritzien tartea izan da jarraian:

- Lazarraga elkarteak udal gobernuarekin bezperan elkartu zela adierazi du. Begi-onez ikusten du Ruiz de Bergara jauregiaren aukera proiektua aurrera eramanez ahal izateko. Bi zalantza nagusi aipatzen dira. Bata, espazioa akustikoki ondo isolatua egongo ote den eta bestalde, espazioaren tamaina ikusita aurreikusitako programa osoa hartzeko tokirik izango lukeen jauregiak.
- Ruiz de Bergara jauregiaren kokapena onartzeak badu baldintzarik: kudeaketa bideragarria egitea hitzarmen baten bidez alderdi guztiek babesten dutena. Honela, hurrengo hauteskundeetan izan daitezkeen aldaketak gertatuta ere proiektua aurrera egin dezan.
- Euskararen Etxearen espazioaren diseinuari dagokionez, bertan programatuko dutenek gela bakoitzeko erabilera erabakitzeke partehartzea eskatzen dute Lazarraga elkartetik. Udala ados dago, euskararen elkarguneen



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila
Departamento de Participación y Centros Cívicos

Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua
Servicio de Participación Ciudadana

bileren bitartez erabakiak hartuko dira. Gainera, jauregiaren sotoa ere erabilgarria da eta espazio horren nondik norakoak argitzear daude oraindik.

- Iñaki Prusillak azaltzen duenez Ogasun Saitetik kudeaketaren inguruko txostena egin da. Kontu-hartzaileak emakida hobeto ikusten du hitzarmena baino. Kontu batzuk (sarrerak, ostalaritza, gela alokatzeak...diru-sarrereren kontuak) argitu behar dira. Udal-gobernuak hitzarmena prestatu nahi du lehen baino lehen, uztailen bertan ahal bada, horrela abuztuan lanean hasteko.

Honen inguruan, hitzarmena prestatzeko Kafe Antzokiaren lan taldea biltzea proposatzen da eta adostasuna dago.

Laburbilduz, kokapenari dagokionez baietza ematen da baina zehaztu beharra dago hitzarmena adostasun zabalarekin.

Irailean proiektuaren diru kopuruen inguruko hurbilketa bat ematea espero da.

Euskara elkargunearen akordioa

Ontzat eman da Ruiz de Bergara jauregian eraikitzearen aukera eta baldintza batzuk ezarri dira: Euskararen Elkarguneak adostu bezala, proiektuaren bideragarritasuna eta kudeaketarako hitzarmena lotu behar dira. Gainera, udal talde politikoen babes/ konpromisoa berrestea komeni da.

4. .EUS domeinua

2017ko abenduan proposatu zen prozedura aintzat hartuko da www.vitoria-gasteiz.eus domeinua berreskuratzeko. Udalaren zerbitzu juridikoa lanean hasiko da.

5. Bukaera

Euskara Elkargunea Oihanederren egiteko arazoak adierazi zaizkio zinegotziari. Bilera tokia askotan aldatzen denez eta zentzuz jokatzeko, Euskararen Etxea bilera leku gisa ezartzea eskatzen da. Espazio publikoen erabileran zailtasunak daude eta udalaren arazoa dela onartzen da. Eskertzen da kultura zinegotziarekin hitz egitea hori konpontzeko.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GEHIGARRIA Ruiz de Bergara kronograma

OPCIÓN 3: UNA ACTUACIÓN	
• 3, GKA + EE en Ruiz de Vergara	
◦ modificación P. Especial	◦ 9-12 meses para aprobar definitivamente ◦ tramitación simultánea
◦ concurso proyecto ejecución rehabilitación y habilitación	Licitación P.E. ◦ pliego, 1 mes ◦ licitación+adjudicación, 4 meses ◦ elaboración P.E., 5 meses ◦ 10 meses
◦ concurso obra	Licitación OBRA. ◦ pliego, 1 mes ◦ licitación+adjudicación, 5 meses ◦ ejecución Obra, 12 meses ◦ 18 meses ◦ total 28 meses
◦ concurso proyecto y obra	◦ Licitación P.E. + OBRA. ◦ Pliego, 1,5 meses ◦ licitación+adjudicación, 5 meses ◦ ejecución Proyecto + Obra, 5+12=17 meses ◦ total 23,5 meses